

BERRI OROKORRAK

2018ko abenduaren 20an 14. zenbakia



Euskaraz Bizi!!!!

Hizkuntza ohiturak aldatu nahi dituzue.

Soziolinguistikako klusterrak hizkuntza ohiturak aldatu zituzten bikotekideekin eginiko ikerketarekin jarraituko dugu. Jarraian, aldaketa eman zuten bikotekideei baliagarriak suertatu zitzaizkien estrategiak aipatuko ditugu.

1- Zergatik aldatu edo zerk mugitu zituzten/ Motibazioak.

2-Zailtasunak.

3-Estrategiak.

4-Gakoak

3.4.- Prozesuaren zaintza

Aldaketa prozesuan gakokoetako bat bezala ageri zaigun aspektu bat da. Bikote hauetan azaltzen da prozesuaren zaintza ikuspegi hori, gainean egote hori, egoskor aritze hori, behin eta berriz euskarara bueltatzeko ariketa eginez.

3.5.- Une batean pausoa eman

Bikote batzuetan –normalean lehendik euskarazko gaitasuna bazutenak- deskribatzen da une bat non bikoteak zirt edo zart erabakitzen duten aurrerantzean euskaraz egingo dutela. Pauso horrekin, bide eman diote beren baitan zuten nahi bati.

3.6.- Bolada batez, ikasten, buru-belarri

Deskribatzen diren ikasketa prozesuetako beste estrategia bat bolada batean horretara buru-belarri jarri izana da. Bikote hauetako kide askok une batean lehentasuna eman diote euskara ikasteari, eta bolada horretan gogo handiz ikasten aritu direla.

1.-Neguko oporrak.

Gogorarazi nahi dizuegu, bihar ostirala, HHko, LHko eta DBHko ikasleek 12:30ean hartuko dituztela oporrak eta urtarrilaren 6an amaituko direla.

Jangela zerbitzua egunero bezala izango da.

Garraio zerbitzua 12:30ean amaituko da.

2.-Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data.

Urtarrilaren 9ean izango da hurrengo Artezkaritza Kontseiluaren bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.

3.-Bazkideen artean zozketatutako otarra.

Udarregi ikastolako bazkideen artean zozketatutako Gabonetako otarra Vicente Medina sendiari egokitu zaio. Zorionak!



4.-Errigorako saskiaren zozketa.

Ikastoletako sare sozialetan, facebook eta twitter, lagunak direnen artean, Errigorako otarra zozketatu da eta irabazlea Camino Zinkunegi sendia da. Zorionak!



5.-Agerialde jolastokiaren estaltzea. PARTE-HARTZEA.

Maiatzeko batzarrean Artezkaritzak azaldu zuen bezala ikastolaren hobekuntza-planen barnean Agerialdeko estaltze lana dago. Estaltzea 2019ko udaran egitea aurreikusi da, eta jada bada, guraso nahiz ikastolako langileez osatutako lan-talde bat lanean.

Ikastolak estaltzea egiteko familien eta erabiltzaileen iradokizunak eta ideiak jaso nahi ditu.

Parte hartzeko bideak:

- artezkaritza@udarregi.eus helbide elektronikoan.

- Idazkaritzan.

Epea: **gaur** amaituko da.

6.-Gonbidapena.

 **HITZARTUK** eta  **GuraSOS**ek abenduaren 29rako antolatu duten ekitaldira gonbidatu nahi zaituztete.

NON: Orona Fundazioaren Auditorioa. Galarreta. (Hernani)

NOIZ: Abenduaren 29, larunbata, goizeko 11:00etan.

ZER: Gizarteari aurkeztuko zaio:

- ✓ Hiritarrek sustatutako Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketarako 2019-2030 plan teknikoa.



BERNARDO ATXAGA



JUAN JOSÉ ÁLVAREZ RUBIO



ESTHER LARRAÑAGA GALDOS



PEDRO IBARRA GURRUTXAGA



ERNESTO GANUZA FERNANDEZ



GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR

- ✓ Berme batzordearen ondorioak.

IRAUPENA: 90 minutu.

ERRESERBAK: Eserleku mugatuak, konfirmazioa bidali email honetara eta lekua gordeko dizuegu.

Konpontzeko ezinbestekoa da herritarren eta instituzioen arteko elkarlana. Denon artean lortuko dugu.

Etor zaitetz!

Informazio gehiago <http://gurasos.org/>



OHARRAK ETAPAKA



HE

1.-Olentzero eta Maridomingiri ongiatorria.

Bihar, ostirala, arratsaldeko **16:45ean Haur Eskolako patioan**, Olentzeroren eguna ospatuko dugu. Egun berezi horretan, baserritarrez jantziko gara eta haur, guraso familia eta langileok **Olentzero eta Mari Domingiri ongiatorria** egingo diegu.

Ondoren, 2-3 urteko haurrak Olentzero eta Mari Domingirekin egongo dira beraien gelan guraso eta hezitzaileekin.

17:30ean Haur Hezkuntzako ikasle eta guraso **guztiak patioan elkartu eta ibilbideari hasiera emango** diogu, kalejiran joanaz herriko kaleetan zehar herriko frontoiraino (18:30ak aldera).

Bertan 2-3 urteko eta HH 5eko gurasoek antolaturiko txokolate goxo da haurrentzat. Helduentzat, aldiz, guraso eta hezitzaileek eramandako patata-tortilla eta txistorrekin eginiko ogitartekoak egongo dira salgai, Urdairako sagardoa ere dastatzeko aukera izango da.



HH

1.-Neguko jaialdia.

Bihar neguko jaialdia ospatuko dugu eta **haurrak baserritarrez jantzita** etorriko dira.

Hamaiketakorako DBH 4ko ikasleek prestatuko digute **ogitartekoa**.

12:10ean ikastolako **patioan abestuko** dugu.

Arratsaldean **17:30etan Haur Eskolako familiekin batera** Kalexarko patiotik abiatu eta **kalejiran ibilbidea egitera animatu nahi zaituztegu**. Ondoren, frontoian haurrentzat txokolate-jana izango da eta helduontzat, ogitartekoak eta sagardoa. ANIMATU, PRIMERAN PASATUKO DUGU!!



LH

1.-Bihar eguraldi nahasia egingo balu.

San Tomas egunean eguraldi nahasia egingo balu, goizeko 9:00etarako sarreretako ateetan eta gure sare sozialetan kalera abestera irtengo garen edo ez, adieraziko zaizue.

2.-Galdutako arropak eta gauzak.

Ikasturtean zehar galdutako arropak eta gauzak Ageri-Aldeko eraikineko sarreran dauden kaxetan topa ditzakezue. Hiruhilabetea amaitzera doan honetan, kaxa horiek hustu beharrean gaude. Beraz, zuen seme-alabek zerbait galdu badute, begiratu bertan. **Bihar**, kaxetan geratzen dena birziklatzeko arropen ontzira eramango baitugu.



DBH

Ez dago berririk.